



**Ohorezko Erregional mailari eusteko pauso garrantzitsua.-** Larunbata arratsaldean, Ostadar SKT-ko futboleko Ohorezko erregional mailako taldeak Aloña Mendi taldearen aurka jokatu zuen Michelingo zelaian. Mikel Medina eta Gabi Sanchezek zuzentzen duten taldeak ez zuen partida ongi hasi eta ondorioz, lehen 15 minutuetan Aloña Mendik gola sartu zuen. Hala ere, herriko taldeak ez zuen amore eman eta 20 minututan partidari buelta eman zion. Baloia jabe egin eta berdinketaren gola egin zuen Egoitz Rodriguezek. Ostean, aurretik jartzeko aukera ugari izan zituen Ohorezko erregionalak baina ezin izan zuen baloia areioaren atean sartu. Atsedenaldea ongi etorri zitzaion Ostadarreko taldeari eta gogotsu atera zen zelaira. Nagusi izan zen lehenengo minutuetan, baina Aloña Mendi akats batez baliatu zen bigarren gola egiteko. Honek min handia egin zion talde lasarteoriarrari eta 15 bat minutu galduta egon zen, zer egin jakin gabe. Baina momentu txarrenetan indarrak ateratzen direla argi utzi zuten erregionaleko mutilek eta Egoitz Rodriguezek bigarren gola egin zuen. Markagailua binakako berdinketarekin utzia. Mikel Medina entrenatzaileak ontzat hartu zuen lortutako puntua. Izan ere, 35 punturekin matematikoki Ohorezko Erregional mailari eutsiko baitiotela deritzo. "Hala ere, gu hobek ginen eta gure akatsek bi puntu galtzera eraman gaitu," aipatu zuen.

### 3 HAUTESKUNDEAK Lasarte-Oriak Ahal du, aldaketa politikoaren alde

Udal hauteskudetant talde berri aurkeztuko da aurten, Lasarte-Oriak Ahal du hautesle-taldea. Podemos-Ahal dugu oinarri izanda taldea aldaketa politikoaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen aldekoa da. Hautagaitza zerrenda eta programa ezagutzera eman zuen larunbatean.



### 4 ELKARRIZKETA Amaia Gonzalez Caballero Europako txapeldun

Europako aretoko dantzen txapelketa burutu zen martxoan Torremolinosen. Amaia Gonzalez Caballerok Jose Mari Orbeozorekin batera garaipena erdietsi zuen pasodoble atalean. Baina ez da hau lortu zuten domina bakarra izan. Txapelketa eta beste hainbat gairi buruz hitz egin dugu berarekin.



## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan  
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua  
Baserri pateia

## BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

## MAITE

ESTETIKAKO ARETOA  
Krisi garaian,  
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,  
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan  
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



## POLITIKA

## EAJren Aldundirako hautagaia herrian izan zen

## Estitxu Alkortaren eskutik herriko hainbat eragilerekin bilerak egin zituzten

EAJren Aldundirako hautagaiak eta Xabier Ezeizabarrenak Lasarte-Oria bisitatu zuten Estitxu Alkortaren eskutik. Herriko hainbat eragilerekin bilerak egin zituzten ostegunean eta Markel Olanok birgaitzearen alde erakundeen arteko elkarlanean ekiteko konpromisoa azaldu zuen.

## TXINTXARRI

**M**arkel Olanok, Gipuzkoako Aldundirako EAJren hautagaia, eta Xabier Ezeizabarrena batzarkidea Lasarte-Oria izan ziren ostegunean herriko eragile, ordezkari eta enprekin batzartu eta herritarren beharrak ezagutzeko. Estitxu Alkorta, zinegotzia eta alkategaia eta Lasarte-Oriako jeltzaleak izan zituen lagun bisitan eta izandako elkarrizketetan EAJk herria "biziberritze eta hazi arazteko" planteatzen dituen neurriak aztertu zituzten.

Oria auzotik hasita, ibaiertzeko herri-guneak eta industrialdeak bisitatu zituzten. Izan ere, Oria ibaia eta ur-bazterrak ingurumen ikuspegitik birgaitzea planteatzen baitu EAJk bere programan. Kolektore berriak ibaiaren garbiketa eta ekosistemaren

errekuperazioa ahalbidertuko du hauen hitzetan eta hori laguntzeko, "hobekuntzak egin beharko dira ibaiertzean kokatutako industrialdeetan eta eremuetan", hala nola ezagutu zuten Kotxerak inguruneke garapen urbanistikoa.

Programan jasotako proposamenarekin "Lasarte-Oriak ibaiari bizkar emateari uztea eta ibai-ertza berreskuratzea" ahalbidetuko da euren ustetan. Markel Olanok azpimarratu zuen, "EAJren konpromisoa erakunde desberdinetatik, Jaurlaritzatik, Aldunditik eta Udaletik, elkarlanean ekiteko Lasarte-Oriak behar eta zor zaion birgaitze horren alde, eta honetan kontuan izan behar ditugu bestelako eragileak".

Markel Olanok, Xabier Ezeizabarrenak eta Estitxu Alkortak Lasarte-Oriako enpresa eta merkataritza



Manuel Lekuonan kirol taldeetako ordezkariarekin egin zuten bilera.

ordezkariarekin bilerak izan zituzten, hala nola, industrialdean kokatutako industria eta enprekin, Aterpeko Ramon Ormazabalekin, edo Luis Jaime de la Cal, Michelin Fundazioko zuzendariarekin. Hartu emanetan, herriko enpresak dituzten kezkek, aukerak eta beharrak aztertu zituztela jakitera eman zuten. Bileretan, Olanok azaldu zuen "garapenerako elkarrekin konpromisoa antolatu beharra, guztion artean; aberastasuna sortzeko eta aldi berean gizartearen kohesiorako mekanismoak sendotuz".

**Kirola ardatz**

"Kirola herri garapenerako tresna izateko" EAJk herrirako udal hauteskundeetarako programan planteatzen dituen neurri zehatzak hizpide izan zituzten herriko kirol eragileekin Manuel Lekuonan izandako bileran. Herriko kirol taldeetako ordezkariak bere aldetik, kirol espazio berrien eta dauden instalazioen berrikuntza beharra azaldu zuten besteak beste. Estitxu Alkortak egungoa ordezkari duen kiroldegi berria Michelinek eraikitzea eta Atsobakarren atletismo pista

izango duen futbol zelaia ere egiteko proiektuak alderdi jeltzaleko programan aurkezteko asmoa azaldu zuen.

Azkenik, Ganbo Iturri elkartearen kideekin bakea eta bizikidetzari buruzko hausnarketa egin eta honekin amaitutzat eman zuen Olanok Lasarte-Oriara egindako bisita. "Oso bisita interesgarria eta hartu-eman mamitsuak izan dira guztiak. Lasarte-Oria eta bere herritarrek hobeto ezagutzeko parada izan da, benetan, gaurkoa", adierazi zuen.

## EHBilduren bilera gaur kanpaina prestatzeko

**H**erriko EHBilduk aurreko legegintzaldiko balorazioa, aurrera begirako erronkak definitu, hauteskundeetarako programa egin eta alkategai eta zinegotzikiak aukeratzeko egindako parte hartze prozesuari amaiera eman zion martxoaren 26an Trinketean ospatutako plaza irekian.

Oraingoan Maiatzaren 24rako hauteskunde kanpainaren prestatetari ekingo dio Lasarte-Oriako alderdiak.

Lanketa fase honetan ere herritarren parte hartzea nahi



Hainbat bilera egin zituzten EHBilduk zerrenda eta programa osatzeko.

duela jakitera eman dute eta horregatik gaur astelehena, apirilak 13, kultur etxeko hitzaldi aretoan 18:30ean

burutuko den kanpaina prestateta saiorako gonbita luzatzen diete bertaratu nahi duten herritar guztiei.

## Udako Txokoetan izena eman daiteke

**U**da gerturatzen doa eta dagoeneko oporraldiak antolatzeko garaia da guraso askorentzat. Gaurtik hasita Udako Txokoetan izena emateko epea zabalik izango da.

Ohi bezala uztaila eta abuztuan goizetan Txokoetan parte hartu ahal izango dute 3 urtetik 12 urte bitarteko haurrek.

Ordutegi arrunta 10:00etatik 13:00ak arte izango da baina lan egiten duten gurasoei erraztasunak emateko asmoz, Goiz Txoko formula erabili ahal izango dute eta


goizeko 9:00etan sartu ahal izango dira haurrak.

Matrikulazioa Ttakuneko bulegoan egin beharko da eta ordainketa egitearekin batera ziurtagarria da plaza.

Bestalde, kanpaldi itxi batzuetan oraindik lekua dago eta hauetan izena eman nahi dutenek ere aukera dute. Kanpaldi itxien kasuan, aurrez izena emateko aukera izan dute, iazko partaideek, ikasturteko programetan parte hartzen duten haur eta gazte txoek eta Ttakuneko bazkideek.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

## Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

## Legeko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna,  
Nerea Eizagirre

txintxarri@txintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Maider Seguro, Jexux  
Artebe, Gorka Alvarez, Pako  
Aizpirtarte, Edu Galarzi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDAL HAUTESKUNDEAK

# Gardentasuna eta aldaketa

## Lasarte-Oriak Ahal du taldea aurkeztu zen



Lasarte-Oriak Ahal du hautesle-elkarteak udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu eta bere programa azaldu zuen.

**Maiatzaren 24ko hauteskundeetan Lasarte-Oriak hautesle elkarte berria egon daiteke. Lasarte-Oriak Ahal du elkarteak bere hautagaitza aurkeztu zuen larunbatean Villa Mirentxu egoitzan. Gardentasun eta aldaketa politikoaren alde agertu zen taldea eta programa herritar eta elkartearen proposamenekin osatu dute. Hauteskundetan egoteko herritarren laguntza behar dutela jakitera eman zuten ere, 500 sinadura.**

## TXINTXARRI

**M**iguel Angel de la Calle Lasarte-Oriak Ahal du taldeko idazkari nagusiak hautagaitza aurkeztu zien larunbatean Villa Mirentxun bildu diren herritarrei.

Talde berria "ustelkerietaz, dirua xahutzeaz eta erakundeen urruntasunaz nazkatuta dauden herritarrek sortu dugu".

Herritarrak dira lehentasuna. Udalean egonez gero marra gorriak izango dituztela azpimarratu zuten. "Herritar guztiek bizitza duina izatea nahi dugu. Ezin gara batzuk ongi bizi besteek bizitzeko haina ez dutenean," aipatu zuten.

Taldeari jasaten dituen kritika zorrotzak ere hizpide izan zituzten, "urte bete da sortu ginela eta ez gara perfektuak. Kritika positiboetatik asko dugu ikasteko".

**Zerrenda**

Hau aurrera eramateko Lasarte-Oriak Ahal du taldeak honako zerrenda aurkeztu du: Arkaitz Naya Carrasco, David Ares Rodríguez, Alicia García Patiño, Miguel Ángel Tolosa, Victoria Molina Berezo, Iban Plaza Martínez, Aitor Tena Aizpuru, Elena Murillo, Cesar Barreiro, Miren García Marcos, Fernando Marante, Alba Valderrama, Francisco Arruti Susberro, Alex Pozo Manibardo, Ana Martínez García, Mari Carmen Marcos Martín eta Miguel Angel de la Calle.

**Parte-hartzea**

Honetaz gain, Arkaitz Naya alkategaiak, David Ares eta Alicia García zerrendako kideek hautesle taldearen oinarriak eta programa azaldu zituzten.

Gardentasuna, parte-hartzea eta aldaketa politikoa ardatz izango dituztela azpimarratu zuten.

"Gure asmoa ez da karrera politikoa egitea," adierazi zuten. Horregatik, herritarrei haien proposamen berri eman-gotz, Udalaren kontu eta kontratazioen ikerketa proposatuko dute eta herritarrek udal informazioa eskura izatea nahi dute.

Era berean, demokrazia eta erakundeak berreskuratzeko apustua egiten dute Lasarte-Oriak Ahal du taldeko kideek. "Horretarako, herri-galdeketa, parte-hartze araudia prestatu eta batzorde berria eratuko dugu, herritarren partehartze eta aholkularitzan oinarritutakoa".

Izan ere, herritarren apatia politikoa eta atsekabea ilusio eta aurrera egiteko indar bihurtu nahi dituzte.

**Programa**

Hauteskunde-programa zintzo eta egingarria aurkeztu dutela jakitera eman zuten. Izan ere, hau elkarteekin izandako bilereetan edo herritarrek egindako proposamenetan oinarritua baitago.

Genero berdinketa, etxebizitza eta hirigintza, hezkuntza, gazteria, adinduak, osasuna,

kultura, euskara, kirola, giza-babesa, migrazioa, ingurumena, mugikortasuna eta garraioa, ekonomia, enplegua eta merkataritza eta kooperazio arloetan proposamen ugari aurkeztu ditu taldeak.

Lasarte-Oriak Ahal du hautagaitza duin eta erreala aurkeztu duela azpimarratu zuen Arkaitz Naya alkategaiak. "Lasarte-Oriak 30 urte ditu eta urte hauetan bi alderdiek kudeatu dute udala. Batek 25 urte egin zituen eta denbora horretan ez zuen Lasarte-Oria erreferente bilakatu. Besteak, kudeaketarako gaitasun eza aurkeztu du" adierazi zuen.

Era berean, aldaketaren unea dela eta "herritarren mailara dagoen herria" egingo dutela adierazi zuen.

Aurkezpenaren amaieran bildu ziren herritarrek haien ekarpenak egiteko aukera ere izan zuten.

**Sinadura bilketa**

Hala eta guztiz ere, hautesle-elkarteak lasarteoriatarren laguntza behar du zerrenda maiatzaren 24ko hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko.

Lasarte-Oriako 500 erroldatuen sinadura aurkeztu behar ditu taldeak apirilaren 20ean eta horregatik sinadura bilketa jarri du martxan.

Gizarte-Etxea taberna ondoko lokalean sinadurak biltzeaz gain, herriko hainbat lekutan jarriko dute mahaia aste honetan.

Okendo plazan izango dira astelehen, astearte, ostegun eta igandean 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, asteazkenean eta larunbatean arratsaldeaz bakarrik eta ostiralean goizez.

Merkatuan izango dira asteazkenean, jaizkibel plazan ostegunean egun osoa eta larunbata goizean eta Zuma-buruko eliza ondoan ostirala arratsaldean.

## BIYAK BAT

**Baztanera irteera**

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Baztan aldera irteera antolatu du apirilaren 29rako.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez goizeko 9:00etan Lasarte-Oriatik atera eta Arizkuneko dagoen Santxotena Museoa bisitatuko dute. Bazkal ostean, superbingoa eta dantzaldia izango dira.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 40 euro. Izena ematea elkarteko bulegoan egingo da, goizetan 10:30etik 12:30era.

## UDALBATZARRA

**Ohiko udalbatzarra asteartean**

Lasarte-Oriako ohiko udalbatzarra datorren asteartean bilduko da, hilaren 14an, arratsaldeko 18:30ean.

Hainbat gai eztabaidatuko dira honetan. Batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak helarazitako txostena ikusirik, lanpostuen zerrendan agertzen diren lanpostu batzuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data aldatzeko Batzordeburuaren proposamena; bestetik Lasarte-Oriako Udaleko Erregelamendu Organikoaren onarpena eta aktibitate, ondasun eta interesen aitortzerako eredu onarpena eta Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan onartzeko eskaera ere jarriko du mahai gainean alkatetzak.

Alderdiek aurkeztutako hiru mozio ere aztertuko dira, "Beterri" eskualdeko garapen agentzia" EAjk aurkeztua, PSE-EEren "Lasarte-Oriako Zahar-egoitzaren egoera"-ri buruzko mozioa eta Bildu taldearen eskutik, "Jaularitzak bultzatu duen Udal Lege egitasmoaren aurrean" mozioa.

Alderdien galdera eta erreguen txandaren ostean, herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izango dute.

## BIYAK BAT

**Lapurretak eta iruzurrak**

Apirilaren 23an, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Ertzaintzak pertsona adinduek lapurreta eta iruzurrak ekiditeko hainbat aholku eskainiko dizkie Biyak Bat erretiratuen elkartearen.

Elkarteko zuzendaritzak jakitera eman duenez, plaza mugatuak izango dira. Honetara 50 entzule bakarrik joan daitezke.

## ONDO IBILI

**Egitasmoaren balorazio bilera asteazkenean**

Badira 4 hilabete "Ondo ibili" ibilbide osasungarriak bultzatzen dituen Lasarte-Oriako taldearen azken bilera burutu zenetik.

Lasarte-Oriako boluntarioz eta hainbat elkarte osatutako talde honek eguraldi ona nahiz txarra egin, ostiralero elkarren jarrailu du, 11:00etan, Okendo Plazan, 4 ibilbide desberdin bultzatzeko. Bete izan dute alboan Osakidetza langileen laguntza bikaina.

Azken bileran adostutakoaren arabera, ebaluatzea dago orain: nola doa taldearen martxa, nola eman daiteke eza-gutzera, jende gehiago erakarri, zer moduz moldatu dira errezetekin eta zigilu sistemarekin, taldeak ekarri dituen zailtasun eta alderdi positiboak, gehiago erabiltzen ote den makinaren parkea, zer hobetu daiteken, etab.

Ebaluazio-bilera asteazkenean, apirilaren 15an, 11:00etan, "Biyak Bat" jubilatuko elkartearen izango da.

## 5. EDUKIONTZIA

**PSE-EEk ezarpenaren atzerapenari buruz Bilduri gaitzeko dio**

Jesus Zaballos, PSE-EEko bozeramaileak, 5. edukiontzia buruz Eguzki eta Zero Zaborrek egindako salaketa ikusirik, Bilduri edukiontzia zergatik ez den ezarri galdetzeraz gonbidatzen ditu bi elkarteak.

PSE-EE 5. edukiontzia alde agertzen da komunikabideei bidalitako oharrean. Bestalde, Bildu atez atekoaren alde dagoela eta 5. edukiontzia oztupoak besterik ez dizkiola jarri salatzen du.

Gainera, batzordeak alderdiek adostutako epeetan lan egin duela eta 2014 urtean ontziak erosi zirela ere aipatzen du, baina "arazo tekniko eta ekonomikoak direla medio ezin izan zen eremutako ezarpena egin".

Zaballosen hitzetan 5. edukiontzia ezarpena Bilduk 2015 urteko aurrekontuak aurrera ateratzeko gaitasun ezagatik atzeratzen ari da, beraz Eguzki eta Zero Zaborrek ez dituzte oposizioko taldeak erantzule egin beharko, Bildu baizik.



Amaia Gonzalez Caballero Dantzaria

# "Begiradarekin ulertzen dugu elkar"

Europako txapeldun izan da Torremolinosen Jose Mari Orbegozorekin batera, pasodoblean

*Europako Txapeldun bat du herriak, Amaia Gonzalez Caballero. Torremolinosen, Jose Mari Orbegozo dantza-bikotekidearekin batera txapela jantzi du pasodoblean, bigarren izan dira salsan, hirugarren chachacha estiloan eta bosgarren konbinatuan. Orain, atsedean hartuko du eta bere eskolarekin emanaldiak prestatzeko gordeko ditu indarrak. Aurten San Pedro festetako emanaldia "berritzailea" izan dadin nahi du, iazko agurra, Ruben Arranzekin batera dantzatutakoa, gogoan.*

JON ALTUNA EGITEGI

**Z**orionak martxoan Torremolinosen egindako Europako txapelketatik. Espero zenuten halako emaitzarik?

Oso gustura gaude. 1.500 bikote ziren eta emaitzak bikainak izan dira. Exigentzia handia zegoen, Europa osoko dantzariekin. Errusiarrak izan dira agian aurkaririk zailenak.

**Nola prestatzen dira halako lehiaketak?**

Denok irabazi nahi izaten dugu, amateur oso onak daude eta profesionalak ere bai halako txapelketetan.

Beste batzuek izena ematen dute ongi pasatzeko, soineko eder bat jarri eta asteburu pasa joaten dira, bidaiatzera. Hala ere, parte hartzen dugun gehienok irakasleak izaten gara. Inbertsio handia eskatzen du, klaseak alde batera uzten ditugu txapelketa hauetan aritzeko. Jakina, titulua lortuz gero zure eskolaren kurrikulumean jaritzeko primerakoa da, baina ez da batere erraza.

**Jose Mari Orbegozo zure dantza-bikoteak eta zeuk egunero entseatzeko duzue?**

Urte osoan zehar batera dantzatzeko dugu. Nonahi izaten ditugu hitzorduak. Gainera bera ere dantza irakaslea da eta klase mordoak edukitzen du, nik bezalaxe.

Dena den, txapelketetarako bi hilebete lehenago hasten gara entseatzeko, koreografiak finitzen eta karga gehiago sartzeko. Ez da batere erraza izaten, goizero 3-4 ordu eta gero klaseak ematen ditugu.

**Pentsatzen dut koreografiak asko lantzen direla... Inprobisaziorako badago tarterik?**

Ez da inprobisatzeko. Begira, zu txapelketa batera joaten zarenean, dakizuna modalitate da, besterik ez. Musika ez dakizu zein izango den zehazki. Luzera bai, minutu eta erdi inguruko lanak izaten dira. Baina erritmoa, abiadura, kantua zein izango diren ez.

Zuk moldatu behar duzu kantura, pistan entzuten da

lehenengo aldiz musika eta jakina, hor dantzarien talentua erakutsi behar da. Koreografia motz geratzen bazaizu luzatzeko gaitasuna izan behar duzu eta luzegi geratzen bazaizu, azken segundotan zer edo zer inprobisatu behar izaten da nola edo hala. Inoiz ez dakizu noiz eta nola amaituko den dantza. Golpe batean, pixkanaka amaitzen den horietakoa izan daiteke, gutxien espero duzuean... Horretarako prest egon beharra dago. Amaiera da momenturik kritikoa guretzat.

Hasiera ere ez da erraza izaten, kantua hasita jartzen baitzute, eta konpasean sartu behar izaten baituzu. Oso entrenatuta gaude, urte asko daramatzagu eta halako mila egoeratan egonak gara, baina txapelketetako urduritasunak badakizu...

**Dantza kirola da?**

Kiroltasun handia dago dantzarien artean. Jendeak uste du traje flamenkoa eta zapatak jartzea eta gorputza pixka bat mugitzea dela dantza, jantzi polit batekin. Bai, ados, baina teknika hori ongi egiteko... Nik abdominalak oso landuta dauzkat, iraupen luzeko entrenamenduak ere egiten ditut, kirolarien gisan. Eskailerak igo, jaitsi, barran luzaketa ariketak egin malgutasuna lortzeko, belaunak indartu behar dira, bikiak... Ez da korrika egitea, ez dakit, kirola ere ez da, baina jendeak uste duena baino exigenteagoa da.

**Hemezortzi urtez Jose Mari azpeitiarrarekin bikote. Horrek ere lagunduko du Europako txapeldun izaten.**

Begiradarekin ulertzen dugu elkar. Izugarri igartzen da. Bera momenturen batean galdu xamar sumatzen badut, badakit nola bideratu. Berak ni ikusten banau despistatuta, heldu eta berriro ekartzen nau eskenatokira eta koreografia zuzentzen dugu. Hori ez dago ezerekin ordaintzerik. Urteekin lortutako esperientzia da, lan asko dago atzean.

**Zer moduz herrian zure dantza eskolarekin?**

Izugarri gustura nago. Ikasle asko dauzkat, Lasarte-Orian zaletasun handia dago. 19 urte daramatzat Lasarten, 96an hasi nintzen kultur etxean eta aretoko dantzak ematen, lehenegotarikoa izan nintzen. Gaur egun dantza latinoak oso modan daude, funtzionatzen du negozioak.

Jaiotzez Grosekoa izan arren, Lasarten hasi nintzen eskolak ematen eta Donostian ere klaseak ematen ditudan arren, nire eskola Lasarte-Orian jarri nahi nuen. Donostian eskola asko daude eta herrian nire publikoa lortu dut, ez dut konpetentzia askorik, oso eskertuta nago.

**Dantzan titulua zara gainera, ikasketa horiek egin zenituen.**

Bai, aretoko dantzak, flamenko eta sevillanetan. Andaluzian, Sevillako kontserbatorioan lortu nuen dantza espainiarreko titulua, Madrilen ere jaso nituen klaseak. Ez dakit Gipuzkoan beste norbait ikasketak horrekin egongo ote den.

**Nondik eta noiztik datorkizu dantzarako zaletasuna?**

Zazpi urterekin hasi nintzen. Txikitatik datorkit, nire gurasoek balletera apuntatu ninduten, dantza klasikoan. Aldi berean sevillan dantzatzeko nintzen etxean hori entzuten genuelako, niri gustatzen zitzaidan sevillan ikustea, grazia zeukaten eta kopiatuz hasi nintzen ikasten.

Aretokoak 12 urterekin hasi nituen. Udararo Sevillara joaten nintzen, han etxea daukagu eta bide batez kontserbatoriora joateko aprobetxatzen genuen. Han hasi nintzen irakasle partikularrekin formatzen.

Handik Parisera bidaiatu nuen, aretoko dantzen irakasle izan nahi nuelako. Oinarri ona neraman, ikasle ona nintzen. Baina nik irakatsi egin nahi nuen, ongi irakatsi eta txikitik ikastetxean frantsesa ikasi nuen... Frantziara joan nintzen. Gero Bartzelonara lekualdatu nintzen, gertutasunagatik.

Madrilen ere badaukat beste irakasle bat ume nintzenetik, Toni Escartin du izena eta, nazioarteko koreografo onenetakoa da. Formazio handia dut, tituluek ematen dizute klaseak ondo emateko aukera. Eta urteetako praktikak, jakina.

**Gainera leku guzti horietan egonda, kultura ezberdinetako gauzak txerta ditzazue zure koreografiatan.**



AMAIA GONZALEZ CABALLERO

*"Dantzan egitea gozatzea da. Jendea ezagutu, erlazionatu, sozializatu, musika entzun, ariketa fisikoa egin... Probatzen duenak errepikatu egiten du, oso dibertigarria da"*

**Aberasgarria, ezta?**

Izugarri aberasten zaitu. Urte asko daramatzat ikasten, formatzen, hazten, rodatzen... Irakasle mordoak izan dut eta orain nik betetzen dut rol hori. Irakasteko asko jakin behar duzu. Ni saiatzen naiz nire eskolan aplikatzen.

Ez pentsa geldirik nagoenik, asteburuero dut kurtso edo kongresuren bat. Horietara joaten naizenean konturatzen naiz ze gutxi dakidan, zenbat geratzen zaidan ikasteko... Eta pentsa, umetan hasi nintzen eta orain 38 urte dauzkat.

**Eta etorkizunerako ze asmo? Ze proiektu daukazu esku artean?**

Aurten ez gara txapelketa gehiagotara joango. Badaude autonomikoak, urtean zehar. Palentzia, Kordoba, Kantabriako txapelketak... Baina asteburu oso bat etxetik kanpo pasatzea garesti iritertzen da, joan-etorria, hotelak... Gertu daudenetara joaten saiatzen gara. Titulua garrantzitsua da, baina hainbeste daukazue... Ez da ezinbestekoa.

Gainera aurten aktuzioz blai gaude, grabazioak ETBn,

San Pedroetako emanaldia, Jose Mari ere udara osoa Goierriin beteta dauka... Konpromiso piloa izaten dugu eta txapelketa batek baino esfortzu gehiago eskatzen dute.

Batez ere San Pedro jaietako aktuzioa da gogorrena, 150 pertsonak hartzen dute parte. Guztien entseguak prestatu koordinatu, haur, heldu, ikasle, ikasle-ohi... Gizonak behar izaten ditut, bikoteak osatzeko. Bati deitu, besteari...

**Lan asko dago atzean ezta?**

Asko. Baina jendeak estimu handiz hartzen du. Iaz erreperatu nuen, baina 2006an nahikoa zela erabaki nuen. Txikituta amaitu nuen mentalki eta fisikoki, ezin nuen gehiago. Iaz ez dakit nondik bildu nituen indarrak eta erreperatu egin nuen saioa. Hainbeste gustatu zitzaizkion ikasleei, berriro eskatu didatela.

Oso zorrotza naiz nire buruarekin. Ondo egindako gauzak gustatzen zaizkit. Lehendabizi, niretzako. Hiru hilabetez prestatzen dut egun bakarreko aktuzio hau. Ikasleentzat polita da urte osoko lana publikoki erakustea, eta ni bete egiten nau.



# Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa

Gaur hasi eta maiatzaren 24a bitartean izango da aukera lanak bidaltzeko

San Pedro jaietako kartel lehiaketa martxan jarri du Udalak azken urteetan egin bezala. Gaurtik lanak formatu digitalean zein paperezkoan aurkeztu ahal izango dira eta irabazleak 600 euroko saria eskuratuko du. Kartel guztietan "San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2015" goiburua azaldu beharko du. Jasotzen diren lan guztiak ikusgai jarriko dira herritarrek euren iritzia eman dezaten.

TXINTXARRI

Azken urteetan egin bezala, Udalak martxan jarri du San Pedro jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa irekia. Gaur hasi eta maiatzaren 4a bitartean izango da aukera lanak bidaltzeko.

Urtero bezala 50x70 formatuan eta formatu digitalean entregatu beharko da eta "San Pedro jaiak 2015 Lasarte-Oria" goiburua izan beharko du. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu eta bere kartela San Pedro jaiak iragartzeko eta sustatzeko egingo diren kartel eta eskuorrietan erabiliko da.

2015ko San Pedro Jaietako kartelen lehiaketarako oinarriei dagokionez, honakoak finkatu dira: Kartel bakarra hautatuko da Lasarte-Oriako San Pedro jaiak iragartzeko. Nahi duen edonork parte hartu ahal du. Pertsona bakoitzak egoki deritzon adina proposamen aurkeztu

ahal izango ditu eta proposamenak jatorrizkoak izango dira, eta beste lehiaketatan saritu gabeak.

Baldin eta kartel guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza intelektual egilearen esku ez bada, kartela ezingo da aurkeztu. Kartel guztiak goiburuan "San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2015" eraman beharko dute.

Bestalde, kartela lantzeko teknika erabat libre da. Kartelak formatu digitalean nahiz formatu fisikoan aurkeztu ahal dira, eta izenburu batekin identifikatu beharko dira. Kartelak ez dira egilearen izenarekin identifikatuak egingo.

## Ezaugarriak

Kartela formatu digitalean aurkezten bada, ezaugarri hauek bete beharko ditu: JPG formatua, 50x70 zm-ko tamaina eta 300 pixel hazbete. Artxiboaren izena obraren izenburutzat joko da.



Elena Dominguez herritarra lana izan zen iaz aukeratutakoa.

Lanak posta elektronikoz bidaliko dira, [sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu](mailto:sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu) helbidera. Mezuan atxikita testuzko dokumentu bat bidali beharko da, egilearen datuekin.

Kartela formatu fisikoan aurkeztea aukeratzeko bada, kartelak 50x70 zm-ko tamaina izan beharko du. Lanak Gaztelekuan aurkeztuko dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 21:30era eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik

20:00etara. Kartelaren izenburua atzealdean jarri beharko da. Kartelari gutunazal itxi bat atxikiko zaio, egilearen datuekin tartean harremanetarako telefonoa.

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak Udalaren webgunean ikusgai jarriko dira, sinadurarik gabe eta izenburuaren bidez identifikatuak. Ondoren, aurrekoetan egin bezala herritarrek ikusgai jarriko diren kartelei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute eta iritzi hori

kontutan hartuko da kartel irabazlea hautatzerakoan. Azken erabakia Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak Batzordeak hartuko du, eta haren erabakia apelaezina izango dela argitzen da lehiaketako oinarrietan.

Azken hiru urteetan hiru herritarrek eskuratu dute saria, 2012an Uxune Iparragirrenen lana hautatu zen, 2013an Arantza Zulaikarena eta iaz, Elena Dominguezen lana izan zen irabazlea.

## Bilera irekia Aldundiko aurrekontuak osatzen laguntzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Partaidetzako Aurrekontuen ekimena martxan da. Aurten, 10 eskualdek parte hartuko dute, Bidasoaldea, Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea, Urola Erdia, Urola Garaia eta Urola Kosta.

Aldunditik azaltzen dutenez, eskualde bakoitzeko herritarrek haien eskualdea hobetzeko 2 milioi euro nola inbertitu erabakitzeke eskumena izango dute.

"Guztira, datozen lau urteotako foru aurrekontuetako 20 milioi zertan inbertitu erabakiko dute gipuzkoarrek. Lehen fase honetan, herritarren ekarpenak jasoko ditugu".

Ekimen honetan parte hartzeko hiru bide ezberdin eskaintzen ditu Aldundiak.

Herritarrek martxoan, Gipuzkoa Berria aldizkariarekin batera etxetara bidalitako eskuorria beteta egin dezake-



Aldundiak autobus zerbitzua hobetzeko saioak egin zituen gurean.

te. Eskuorriak herriko bilketa puntuetan, udal egoitzetan, ere eskuratu ahal dira. Bestetik, [www.aurrekontuahobetzen.eus](http://www.aurrekontuahobetzen.eus) webgunearen bidez ere egin daitezke. Honetan erabiltzaile bakoitzak aurretik egin ez badu, erregistratu egin beharko du eta bere eskualdeari dagokion tartean proposamenak egin.

## Bilerak

Azken aukera partaidetzako

tailerretara gerturatzea da. "Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako 2 milioi euro daude mahai gainean". Tailerrera doazen herritarrek haien eskualdea hobetzeko ekarpenak egin ditzakete eta haien ustez eskualderako onuragarriak izan daitezkeen proposamenak egin.

Buruntzaldeako bilera gurean egingo da bihar, apirilak 14, 19:00etan Villa Mirentxun.

## Udaltopen, hizkuntza legea hizpide



Iñaki Arruti herriko euskara teknikaria Euskararen bidegorria egitasmoaz iaz.

Udaltop Euskara Zerbitzuen Topaketaren seigarren edizioa egingo da. Aurtengoan, hizkuntza legea izango dute hizpide apirilaren 29an eta 30ean Manuel Lekuona kultur etxean.

"Nola bete hizkuntza legea, lege hizkuntzan galdu gabe?" izenburupean, besteak beste, Eusko Jaurlaritzan lantzen ari diren Udal Legez ariko dira: zertan hobe dezakeen udaletako hizkuntza-politika, nola arautu daitezkeen, legea hobetzeko proposamenak, eta abar. Era berean, Euskal Herriko lurralde ezberdinetako errealitateen

berri emango da, beti ere hizkuntza legea oinarri hartuta.

Orotara, bederatzi hitzaldi izango dira. Eta tartean izango dira Zelai Nikolas, Eusko Jaurlaritzako legelaria; Iñigo Urrutia, EHUko zuzenbide irakaslea; Iñigo Lamarka Gipuzkoako Batzar Nagusietako legelaria; edota, Laura Perez, Nafarroa Aldatu Ahal Duguko idazkari orokorra.

## Izen-ematea

Bertaratzeko interesa dutenek, [www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus) webgunean dute izen-emateko aukera. Prezioa 8 eurokoa da, bi egunetako otorduak barne.



## ARETO-FUTBOLA.

# Herriko areto-futbol txapelketa gori-gori

Indaux eta Txindoki taldeak lehen zati honetako txapeldun izateko lehian daude

**Ostadar SKTk antolatzen duen areto-futboleko txapelketako lehen fasea azken jardunaldietan sartu da. Lehen postua erabakitzeke lehia handia dago Txindoki eta Izkiñaren artean. Baina txapeldunen fasean sartu edo pitxitxi trofeoa eskuratzeko ere borroka handia da.**

## TXINTXARRI

Lau jardunaldi geratzen dira Ostadar SKTk antolatzen duen herriko areto-futbol txapelketako txapeldunen fasean zein talde sartuko diren jakiteko. Hurrengo asteburuetan norgehiagoka interesgarriak ikusiko dira Michelingo areto-futboleko kantuan.

Lehen faseko sailkapenean buru zein talde izango den ere erabakitzeke da, Txindoki eta Izkiña taldeek puntu berdinketa baitute. Nahiz eta gol kopuruagatik Txindoki sailkapeneko lehengo izan, akats batek Izkiñaren alde jarri dezake balantza.

Larunbatean bi taldeek jokatu eta ez zuten hutsik egin.

Izkiña tabernak Txoko tabernaren aurkako partida zuen.

Lehen eta azken sailkatuaren arteko maila ezberdintasuna agerian geratu zen partida hasieratik.

Izkiña tabernak erraz jokatu zuen eta 8 eta 2ko markagailua izan zen amaieran.

Jarraian, Indaux eta Txindoki tabernaren arteko norgehiagoka izan zen.

Txindokik hasieratik bere erritmoa ezarri zuen eta atera iristean bere nagusitasuna erakutsi zuen. Atsedenaldira 5 eta 1 iritsi ziren taldeak.

Bigarren zatian ere ez ziren gauzak aldatu eta Txindokik lortu zuen garaipena, 9 eta 1eko markagailuan zela.

## Txapeldunen fasea

Bestalde, hurrengo fasean, txapeldunen fasean sartzeko borroka ere ikusgarria izango da geratzen diren jardunaldietan.

Trumoi eta Indaux taldeek txapeldunen fasean egoteko ahaleginak egingo dituzte, baina ez dute lan erraza izango. Jardunaldi hau jokatu aurretik, sei puntutara Reformas Lagunak taldea eta zazpira Viña del Mar taldea zituzten. Hala ere, Trumoi tal-



Larunbatean Txindoki tabernako jokalariek nagusi izan ziren Indaux taldearen aurka.

deak partida bat gutxiago jokatu duela kontuan izan behar da eta horrek hiru puntu jokoan egotea dakar.

Indauxek aipatu legez, Txindokiren aurka galdu zuen larunbatean. Ostiralean, aldiz, Trumoi eta Reformas Lagunak taldeen arteko partida ikusi ahal izan zen, baina ezin izan dugu partida honetako emaitzarik lortu edizioa itxi baino lehen.

Gauzak honela, Txindoki, Izkiña eta hauetako talde birekin batera Buenetxea taberna,

El Punto taberna, Insausti taberna eta Urdaneta hertz klinika taldeak egongo liriteke egun txapeldunen fasean; Also taberna, Ilargi taberna eta Txoko tabernak aldiz, kontsolazio ligaxkan jokatuko liriteke.

## Pitxitxi

Hau guztiaz gain, pitxitxi trofeoa eskuratzeko lehia ere bizia da. Bi jokalariek Buenetxeako Ander Petxarroman eta Izkiñako Ander Rubio dira gaur egun sailkapeneko bi lehenak.

Jardunaldi honetan, Asier Rubiok lau tanto gehitu ditu bere gol kopurura, guztira 41 gol eta Ander Petxarromanekin, 44 gol, zuen tarte murriztu du.

Buenetxeak aste honetan atsedenaldira izan du eta horregatik Anderrek ezin izan du bere kopurua handitu.

Lehen faseko lau jardunaldi eta txapeldunen fasea geratzen dira aurretik, baina bi jokalariek hauek erakutsi dute pitxitxi trofeorako hautagai serioak direla.

## DARDOAK.

## Also tabernako dardo jokalariek Espainiako onenen artean

Lasarte-Oriako bost gaztek parte hartu zuten joan den asteburuan Espainiako dardo txapelketan. Ekitaldia Benidormen jokatu zen eta lasarteoriatarrek amateur eta master mailan jokatu zuten ALSO tabernako kide moduan.

Batetik, Alain Martinek zilarrezko domina ekarri du etxera bakarkako modalitatean parte-hartuta, Yeray Macias bederatzigarren izan zen eta Ruben Manzanares 17. postuan sailkatu zen. Gainera, Jorge Cidek gorengo mailan bosgarren postua erdietsi zuen.

## Aho-zapore gazi-gozoa

Taldeko modalitatean podiumeko kosken ateetan geratu ziren ALSO taldeko kideak bosgarren postuan sai-



Alain Martinek zilarrezko domina ekarri du etxera bakarkako modalitatean.

lkatuz, sentsazio gazi-gozoarekin geratu dira beraz taldeko kideak, aukera bikaina galdu dutela iruditu baitzaie estatuko titulua bereganatzeko eta Munduko Kopara txartela eskuratu ahal izateko.

Datorren urtean txapelketa gehiago prestatuko dutela adierazi eta gogoz beterik itzuliko direla diote jokalariek.

Orain, entrenatzen jarraituko dute ohi duten lagunarte giro onean.

## AUTOMOBILISMOA.

## Aitor Manso karting pilotu gazteak Villarcayon hasiko du Iparraldeko Opena

Hamalau urterekin, Aitor Manso Garmendia gidari lasarteoriatarrek laugarren denboraldia hasiko du lasterketako karting bat gidatzen. Apirilaren 19an ekingo dio denboraldiari, junior kategorian, Burgoseko Villarcayo zirkuituan.

Gaztea izan arren, hainbat titulu ditu jadanik palmaresean. Euskadiko Karting txapeldun izan zen 12 urterekin kadete mailan eta Euskadiko Automobilismo federazioak urteko Kadete onena izendatu zuen gainera.

Aurten erronka zaila du aurretik, pilotu zaharragoekin lehiatuko baita. "Kategoria eta auto berria dauzkagu, txasisa handiago da eta zilindrada gehiago du, 125cc-koa da orain", adierazi du Mansok.

Bi arazo dauzka, entrenatzeko zirkuitu falta eta babesle gabezia: "Inbertsio handia eskatzen duen kirola da, babesle txiki batzuei esker jotzen dugu aurrera eta Olaberria eta Güeñeseko zirkuituak ez daude egoerarik onenean", ohartarazi du.

Egutegiko lasterketak: La Rocan (Kantabria) maiatzaren 3an, ekainaren 7an eta urriaren 11n; Villarcayon apirilaren 19an, ekainaren 19an eta irailaren 27an.





## Agenda

Ostirala apirilaren 24a arte, Manuel Lekuona kultur etxea



### Goi Erdi Aroko arte moldaviarraren ereduak

Datorren ostirala bitartean Manuel Lekuona ikusgai dago XV. eta XVI. mendeetako Moldaviako artea. Bereziki aipatzekoa da freskoetan azken urteetan egin diren zaharberitze lanak. Hauei esker erakusgarri dira arte honetako harribitxiak. Decebal, Errumania-Euskadi elkarteak antolatutako erakusketa da eta Udaleko Kultura sailaren laguntza izan du. Sarrera doan da eta kultur etxeko erakusketa aretoaren ohiko ordutegian 18:00etatik 21:00era dago ikusgai erakusketa.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 12:00etan

Lasarte-Oriako SuBerri akordeoi orkestraren kontzertua. Doan.

### Tailerra

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 11:00etan

Haurrei zuzendutako Pazko-arrautzak apaintzeko tailerra egingo da.

### Literatura

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 21, 18:30ean

Annie Ernaux-en 'Pasio hutsa' nobela izango dute hizpide Irakurle txokoa. Ohi bezala gidari izango dute Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria. Parte hartzea irekia da.

### Andoain

### Bertsolaritza

BASTERO KULTURGUNEA

Larunbata, 11:00etan

"Aio Tolosa!" bertso afaria antolatu dute AEK, Aiurri, Bertso Eskola eta Udalak. Zizurkil, Villabona eta Andoain 400. urteurrena betetzen ari dira Tolosatik bereizi zirela. Bertsolariak: Zizurkilgo Unai Mendizabal eta Joseba Otaegi, Amasako Oihana Iguaran eta Beñat Iguaran, eta Andoaingo Jon Eskudero eta Ion Beloki. Gai jartzailea: Amaia Agirre izango da. Txartelak 20 eurotan salgai daude Andoaingo Udaletxeko Ataria zerbitzuan, Ernaitza liburudendan eta Urkiola tabernan; Zizurkilgo Iriarte tabernan, eta Amasa-Villabonako Amasa kafetegian.

### Lasarte-Oria

### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Annie" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Fuerza Mayor (Turist)" filma helduenzako zinema atalean. Urrezko Globoetan izendapena eskuratu zuen film suediarrek ingelesa ez den hizkuntza batean egindako film onena atalean. Sarrera 5,50 euro.

### Antzerkia

UDAL EUSKALTEGIAN

Asteazkena, 18:00etan

"Eta hik zer?" antzerki foruma izango da. Baketik eta Donostia 2016ren ekimena da. Elkarbizitzaz hausnartzeko parada izango da.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirilean zehar

Haur eta gaztetxoek 2014 urteko Udako Txoko eta Kanpaldiak gogora ekartzeko argazki erakusketa antolatu da.

### III. Musika Astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna, 20:00etan

Haize-instrumentuez osatutako Hirubi boskotearen kontzertua. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 20:00etan

Mikel Urdangarin bakarleriaren kontzertua. Sarrera 5,50 euro.

SAN PEDRO ELIZAN

Larunbata, 20:00etan

Ars Combinatoria ahots talderen emaldia izango da. Erdi Aroko musika eskainiko dute. Doan.

## Herritarren txokoa

### Udako Txoko eta Kanpaldietan begiraleak behar dira

Uztaila edo abuztuan zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Mendigorria eta Donemiliagan udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) helbidera mezu bat bidali besterik ez du. Begirale poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

### Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hila-beteko iraupena duten erakusketak

izanten dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriako izan behar espazio hau erabiltzeko.

### Lasarte-Usurbil institutoko zozketa

Martin Berasategi jatetxean bazkaria irabazi duen zenbaki sariduna 1949 da. Hau daukanak Institutotik pasa behar duela jakitera eman du zentroak.

## Sarean

### Mugikaria, albisteen jarraipenerako app berria



Euskarazko albiste-aplikazio berria garatu du CodeSyntax enpresak. Simple eta zuzena da Mugikaria: goizeko 9:00etan eta arratsaldeko 18:00etan osatuko ditu bere edizioak, eta abisua bidaliko dizu mugikorrera ordu horietan aplikazio instalatua baduzu.

Sarreraren albiste nabarmendu bat dago, eta gainerakoak, hiru eta dozena bat albiste arteen izan daitezke hautatuak. Nola albistek iturri desberdinetatik aterazen diren, soilik testu labur bat eskaintzen da bakoitzarekin: osorik irakurtzekotan, esteka ireki eta jatorrizko webgunera joango zara.

Albiste bakoitzaren osagarri gisa, Umap euskarazko txio biltzailearen bidezko txio aukeratu batzuk ikusiko dituzu.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)



# Adiskidetza sustatzeko antzerki-foruma

Asteazkenean 18:00etan izango da Baketik eta Donostia 2016ren ekintza Udal Euskaltegiko aretoan

Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzak eta Baketik Fundazioak "Antzerki-foruma: Eta hik zer?" proiektu ibiltaria ekarriko dute herrira asteazkenean. Aurretik beste hitzordu bat jarri zuten arren, jende faltagatik bertan behera geratu zen. Ekimena Udala azken hilabeteotan bizikidetzaren inguruan egiten ari den lanketaren baitan dago.

Eguno testuinguru sozial eta politikoan bizikidetzaren eta adiskidetzaren sustatu asmoz sortutako egitasmoa da asteazkenean ikusteko aukera izango dena.

Antzerki-forum metodologiaren bitartez hiru galderen inguruan hausnar-tzeko aukera izango dute bertaratu-takoek; Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin?

Asteazkenean Udal Euskaltegiko aretoan 18:00etatik aurrera izango da antzerki berezi hau.

Lantegia egiteko gutxieneko talde bat osatu behar da eta dagoeneko osatu dela jakitera eman dute antolatzaileek

hala ere, joan asmo duenak izena eman dezakete 688 681 466 telefonora deitu edo [antzerkiforuma@dss2016.eu](mailto:antzerkiforuma@dss2016.eu) emailera idatzi.

## Dinamika

Saioa bi zatitan banatzen da: lehen zatian, edonork egunerokoan izan ditzakeen gatazken inguruko sei istorio labur antzeztuko dira.

Ondoren elkarrizketarako tartea etorriko da. Bigarren zati honetan, istorioek amaiera positiboago bat izateko egin beharko liratekeen aldaketa txikien inguruan galdetuko zaie ikusleei.

Bat-bateko iradokizunak izango dira eta nahi duenak, praktikan jarri ahal izango ditu aldaketa horiek, taula



Martxorako iragarritako saioa ezin izan zen egin baina asteazkeneko hitzordua ziurtatuta dago.

DSS2016

gainean aktoreen eta gidoigile eta zuzendari bihurtuko diren gainerako ikusleen laguntzaz, iradokizun horiek istorioetan txertatu eta antzeztuz.

"Metodo hau izan daiteke, beraz, bizitza errealean egin nahi ditugun aldaketetarako entsegu bat, jarrera pasibo

batetik jarrera aktibo batera igarotzeko zubia. Bi orduko esperientzia pertsonal bat da, gure iragan hurbilera so egin eta etorkizun kolektiboa beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen diguna".

Ehun antzerki-forum saio egingo dira eta horietan parte-

hartzaileek etorkizunerako dituzten desira eta konpromisoak biltzea da asmoa. "2016an desira eta konpromiso horiek jendaurrean jarriko dira, etorkizunaren bidean gizartearentzat lagungarri eta inspirazio iturri izan daitezten".

## Soberonen lanak 'Paisaren Murmurioa' erakusketan

TXINTXARRI

Koldo Mitxelena Kulturune-ko erakusketa aretoan "Paisaiaren Murmurioa" izeneko bildumaz goza daiteke. Paisaiaren ikuspegi desberdinak aurkezten dituzte hainbat artistek, horien artean da Pilar Soberon lasarteoriatarra.

"Paisaiaren Murmurioa" erakusketa paisaiaren inguruko begirada anitzten sorta da, eta aldi berean, "begirada horietatik eratortzen diren hausnarketak erakusten dira, artisten proposamen eta prozesu ezberdinen bitartez".

Erakusketaren antolatzaileek azaldu dutenez, "azken hamarkada honetan azpimarratu behar da teknologia digitalak modu berezian aldatu dituela gure bizimoduak, eta artea ere modalitate berri horretan sartuta dago, non teknozientziak eta globaltasunak ezartzen baitute ordena eta arrazionaltasuna".

### Naturaren aldeak

Pilar Soberon herritarraren lanekin batera daude, Iranzu Antona, Maria Cueto, Arantxa Guereño, Alvaro Matxinbarrera, Jaime de los Rios, Iñigo Royo, Unai San Martin, Soi-

numapa.net eta Gentz del Valle artistenak ere.

Bakoitzak esparru bat lantzen du eta argazkiekin batera, bideo proiektzioak, eskulturak edota bestelako euskarrietan egindako artelanak ikus daitezke.

Naturaren bi aldeak erakutsi nahi dituzte lanek, literaturak sortutako 'locus amoenus' terminoak leku idiliko eta atsegin gisa, iradokitzen du badagoela paradisuko, bakezko eta soseguzko natura bat.

Baina, era berean, badago 'locus horrendus' deitutakoa: goibela, basoaren enigma eta misterio kezkarria, ezkutakoa eta ezezaguna, lurpekoa eta leizekoa, underground delakoa, mugagabea den muga, paisaia isilak, hondamendiak, etab.

### Soberonen argazki izoztuak

Soberonen kasuan, erakusketan, ikusgai daude bere argazki izoztuak. Azaltzen duen bezala, "bai adiera hertsian, bertan agertzen diren tanta izoztuetan, bai irudizko adieran, denboran izoztuak. Lan horiek eramaten gaituzte amildegira, leize, ahoaren eta naturaren sinbologiara, zen-



Pilar Soberonen lanetako bat da paisaia izoztuen argazkiekin osatutakoa.

KOLDO MITXELENA

baitetan irensele eta femeni-noaren sinbolo ezkutu handia duena".

Maiatzaren 30a bitartean izango da ikusgai erakusketa hau Koldo Mitxelena kulturunean. Doakoa da sarrera eta herriko artistak bere lanak ezagutzera animatzen ditu herritarrak.

Honetaz gain, jakinarazi digunez, berriki Italian bere lana ezagutzera emateko aukera izan zuen Etxepare Institutuen laguntzari esker.



Soberon gainontzeko artistekin erakusketaren irekieran.

FORU ALDUNDIA